

TOKIKO GOBERNU BATZARRA 2024-06-06

Ohiko bilkura

Eguna: 2024ko ekainaren 6an
Lekua: Udaletxeko batzar aretoa
Hasiera: 17:00
Bukaera: 17:45

Behar bezala deituta eta gai-zerrendaren arabera jakinarazita, alkate-udalburuaren lehendakartzapean bildu ziren, lehenengo deialdian, jarraian zerrendatzen diren eta tokiko gobernu batzarra osatzen duten jaun-andreok, egun horretako ez ohiko eta urgentziazko bilkura egiteko.

BERTARATUAK

Alkate-Udalburua: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Iñigo Ruiz Barron jauna (EH Bildu)
- .- Lierni Altube Moyua andrea (EH Bildu)
- .- Anik Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)

Behin behineko Idazkaria: Jesus M^a Madinabeitia Jauregui jauna
Kontuhartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

Ez da bertaratu:

- .- Iñaki Olalde Altelai jauna(EH Bildu)

AZTERGAIAK

- 1.- Onartzea, hala badagokio, **14.2024 ohiko bilkuraren akta, 2024-05-30ekoa.**
- 2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiari dagozkion “C” lerroko dirulaguntza eskaeren ebazpen partzialak(Espedientea: ESKUA2024ZDK00015)**
- 3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiari dagozkion “D” lerroko dirulaguntza eskaeraren ebazpen partziala Espediente zenbakia: 2024ZDK00016**

4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena Gazteen emantzipaziorako dirulaguntza eskaera (2024/S/3507), kontrako ebazpena.(**Espedientea: ESKUA2024JGEN0007**)

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Kantokrit Oñatiko Kriteriuma txirrindularitza lasterketa antolatzeko dirulaguntza 2024**

6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024. Espedientea ESKUA2024ZDK00007**

7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **kontratatze kontratu txikia onartzea, eta kontratua ERVITIMUSIK, S.Lri esleitzea, 6292 euroan (%21 BEZa barne). (esp.: 2024ZKON0064)**

8.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2024ko laguntza deialdiaren ebazpen proposamena**

9.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Oñatiko HOMtao artzain txaboletan egindako lanak diruz-laguntzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren ebazpen-proposamena**

10.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Informatikako azpiegiturak kudeatzeko zerbitzu gestionatua kontratatze kontratua onartzea, eta kontratua SEIN TIC S.Lri esleitzea, 13890,8 euroan (%21 BEZa barne)**

11.- Beste gai batzuk.

BILERA

Behar besteko quoruma dagoela egiaztatu ondoren, alkate-udalburuak bilkura ireki dela adierazi du, eta gai-zerrenda osatzen duten gaiak aztertu dira. Gai horiek Tokiko Gobernu Batzar honi dagozkio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23. Artikuluaren arabera.

1.- Onartzea, hala badagokio, 14.2024 ohiko bilkuraren akta, 2024-05-30ekoa.

2024ko maiatzaren 30eko bilkuraren agiria irakurri ondoren, **Tokiko Gobernu Batzarrek, aho batez, onartzea erabaki du.**

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiari dagozkion “C” lerroko dirulaguntza eskaeren ebazpen partzialak(Espedientea: ESKUA2024ZDK00015)**

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 3ko proposamenak honela dio:

Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiari dagozkion “C” lerroko dirulaguntza eskaeren ebazpen partzialak(Espedientea: ESKUA2024ZDK00015)

2024ko maiatzaren 29ko dataz Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitario Teknikaria den Onintza Andres andreak egindako txostenak honela dio:

" Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.: 2024ZDK00015

Interesduna: OÑATIKO UDALA

Gaia: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiari dagozkion "C" lerroko dirulaguntza eskaeren ebazpen partzialak

Sarrera erregistroa: 2024/3056; 2024/3235

2024ko maiatzaren 14an egindako Partaidetza eta Garapen Komunitarioko informazio batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak:

"3.1. Garapenaren aldeko lankidetzako dirulaguntzak: 2024 deialdiko "C" lerroa: Oñatiko udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio jardueratarako dirulaguntzak"-ko dirulaguntza eskaeren ebazpen partzialaren proposamena onartzea

Gertakariak:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako bilkuran Udal Plenoak aho batez ondorengo akordioa onartu zuen: Oñatiko Udalak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokor eta espezifikoak (GAOn argitaratua 2022ko apirilaren 20an, 72.zk.)

Bigarrena.- Oñatiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, 2024ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez egindako aldaketekin, besteak beste, 2024 ekitaldiari dagokion deialdia egitea onartu zuen (GAOn argitaratua 2024ko otsailaren 5ean, 25. zk.).

Hirugarrena.- "C" lerroko, eta 2024ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira bederatzi mila eta bostehun euroko (9.500,00 €) gastua baimendu da, 0391.481.231.60.01 2024 sailaren kargura.

Laugarrena.- C lerroko dirulaguntzak eskatzeko epea 2024ko abuztuaren 31 artekoa da.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.- Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak jasotako eskaerak aurkeztu ditu, eta oinarri espezifikoetan jasotako puntuazio-irizpideak kontuan hartuta aurre-balorazioa egin du eta batzordearen azterketara jarri da txostena.

Bigarrena.- Eskatzaileek oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu dute eta guztiek betetzen dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileen arabera onuradun izateko baldintzak betetzen dituztelako, balorazioko txosten teknikoak aurkeztu du Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak, eta dirulaguntza ematea proposatu, ondorengo eran:

ESKATZAILEA	"C" LERROKO JARDUERA	PROIEKTUAREN ZENBATEKOA GUZTIRA (€)	ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZA (€)	JASOTAKO PUNTUAZIOAREN ARABERA EMANDAKO DIRULAGUNTZA (€)	ZURIKETARAKO GUTXIENGO ZENBATEKO KONPUTAGARRIA (€)	ORDAINKETA BAKARRA AURRERATUA (%100)
AMS ACTIVOS POR UN MUNDO SOLIDARIO (MSH) IFZ: G82908047 Sarrera zk.:2024/3056	Nuestra identidad. Dos miradas, un mismo fin	14.787,29 €	4.000,00 €	500,00 €	666,67 €	500,00 €
EREI ELKARTASUNERAKO ELKARTEA IFZ: G06846984 Sarrera zk.:2024/3235	Kulturarteko bizikidetzarako urratsak ematen ahots migratuen bidez	13.426,00 €	4.000,00 €	4.000,00 €	5.333,33 €	4.000,00 €
*) Oharra: zuriketari dagokion zenbateko konputagarria honako formularen bitartez atera da: $\text{Zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria} = \frac{\text{Onartutako diru laguntzaren zenbatekoa} \times 100}{75}$ Eskatzaileek ebazpenaren jakinarazpenean « zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbatekoaren 100 % zuritu beharko dute gutxienez. Dirulaguntzari emandako erabileraren justifikazioa aurkezteko epea, gehienez ere, urteko deialdian ezarritakoa da (2024ko abenduaren 31a).						

Honekin batera, oinarrietan ezarritakoari jarraituz, jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1 0391.481.231.60.01 2024 diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

Laugarrena.- Hau horrela, dirulaguntzen ordainketa honela bideratzea proposatzen da:

- Onarpenarekin batera onartutako dirulaguntzaren %100 emango zaio eskatzaile bakoitzari – ordainketa bakar aurreratua-. Dirulaguntzen xedea kontuan hartuta eta horiek jasotzen dituzten erakundeak irabazi asmorik gabekoak direnez, ez da bermerik eskatuko ordainketa aurreratuengatik.
- Eskatzaileak oinarri orokorretan eta espezifikoeetan zehaztutako betebeharrak bete dituztela eta derrigorrezko agiriak aurkeztu dituztela egiaztatuko du Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak zuriketa epean. Zuriketa egiteko formulario normalizatuak Oñatiko udalaren dirulaguntzen web atarian eskuratu ahal izango dira.
- Eskatzaileak jakinarazpenean « zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbateko osoa % zuritu beharko du gutxienez dirulaguntza bere osotasunean jasotzeko, 2024ko abenduaren 31erako berandurenez. Egindako likidazioa aurreratutako kopurua baino txikiagoa bada, dagokion itzulketa-espeditatea izapidetuko da.
- Oinarrietan edo dirulaguntzaren emakidan jarritako edozein betebehar betetzen ez bada, berriz aztertuko da dirulaguntza, eta, horren arabera, emandako dirulaguntza baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko da.
- Zuriketarako epeak luzaezinak izango dira kasu eta egoera guztietan.

Bosgarrena.- Aurre-ebaluazioa eta balorazioa bere egin eta onartu ditu Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak, eta proposamena ebatzi ondoren, Organo Eskumendunari, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeari, aurkezturiko taula hauek onartzea eta dirulaguntzen ordainketa bideratzea proposatzen dio."

SINA98a9a578-5a89-4b23-a99d-8bacdd86c36f

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: *“Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

34.3 artikulua: *“Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Oinarrietan zehazten da lerroren batekorako aurreikusitako zenbatekoa agortzen ez bada, esleitu gabeko zenbatekoa gainerako lerroetako eskabideak diruz laguntzeko erabili ahal izango da, betiere dagozkien oinarrietan eskatzen diren baldintzak eta puntuazioa betetzen badituzte. Horregatik, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko sailak proposatu du “B” lerroan agortu gabe zenbateko “A” lerroko dirulaguntzetarako erabiltzea bere osotasunean. Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak aldeko iritzia agertu du.

Azaldutakoagatik, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko informazio batzordearen onetsiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen zaio:

Lehenengoa.- Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak “C lerroa: Oñatiko udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sensibilizazio jardueratarako dirulaguntzak.” egindako proposamenean zerrendatutako eskatzaileei dirulaguntzaren onuradun izaera berrestea, 2024ko dirulaguntzen deialdiaren ebazpen partziala egitea eta 4.500,00 €-ko gastua baimentzea, goian aipatutako xehetasunekin, 1 0391.481.231.60.01 2024 diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

Hirugarrena.- “C lerroa: Oñatiko udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sensibilizazio jardueratarako dirulaguntzak”-en onarpenarekin batera dirulaguntzaren %100a onartzea eta ordaintzea eskatzaile bakoitzari –taulan zehaztutako ordainketa bakar aurreratua. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla eta diruz

lagundutako ekintzak benetan egin direla agiri bidez egiaztatu behar dute, kontu zurigarria aurkeztuz 2024ko abenduaren 31a (barne) baino lehen.

Aurkeztutako justifikazioak aztertu eta egiaztatutako ditu Udalak.

Laugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzeko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gga.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Bosgarrena.- Dirulaguntza hauen onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Seigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta arloko teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiari dagozkion "D" lerroko dirulaguntza eskaeraren ebazpen partziala Espediente zenbakia: 2024ZDK00016**

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 4ko proposamenak honela dio:

"Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiari dagozkion "D" lerroko dirulaguntza eskaeraren ebazpen partziala

2024ko maiatzaren 29ko dataz Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitario Teknikaria den Onintza Andres andreak egindako txostenak honela dio:

Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.: 2024ZDK00016

Interesduna: OÑATIKO UDALA

Gaia: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2024ko deialdiari dagozkion "D" lerroko dirulaguntza eskaeraren ebazpen partziala

Sarrera erregistroa: 2024/3138

2024ko maiatzaren 14an egindako Partaidetza eta Garapen Komunitarioko informazio batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak:

"3.2. Garapenaren aldeko lankidetzako dirulaguntzak: 2024 deialdiko "D" lerroa: larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak"-ko dirulaguntza eskaeraren ebazpen partzialaren proposamena onartzea

Gertakariak:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako bilkuran Udal Plenoak aho batez ondorengo akordioa onartu zuen: Oñatiko Udalak garapenaren aldeko nazioarteko

lankidetzarako emango dituen dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokor eta espezifikoak (GAOn argitaratua 2022ko apirilaren 20an, 72.zk.)

Bigarrena.- Oñatiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, 2024ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez egindako aldaketekin, besteak beste, 2024 ekitaldiari dagokion deialdia egitea onartu zuen (GAOn argitaratua 2024ko otsailaren 5ean, 25. zk.).

Hirugarrena.- “D” lerroako, eta 2024ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hamazortzi mila euroko (18.000,00 €) gastua baimendu da, 0391.481.231.60.01 2024 sailaren kargura.

Laugarrena.- D lerroko dirulaguntzak eskatzeko epea 2024ko azaroaren 1a artekoa da.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.- Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak jasotako eskaera aurkeztu du, eta oinarri espezifikoetan jasotako puntuazio-irizpideak kontuan hartuta aurre-balorazioa egin du eta batzordearen azterketara jarri da txostena.

Bigarrena.- Eskatzaileak oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu du eta g dirulaguntzaren onuradun izateko baldintza betetzen du.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileen arabera onuradun izateko baldintzak betetzen dituelako, balorazioko txosten teknikoak aurkeztu du Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak, eta dirulaguntza ematea proposatu, ondorengo eran:

ESKATZAILEA	“D” LERROKO PROIEKTUA	PROIEKTUAREN ZENBATEKOA GUZTIRA (€)	ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZA (€)	JASOTAKO PUNTUAZIOAREN ARABERA EMANDAKO DIRULAGUNTZA (€)	ZURIKETARAKO GUTXIENGO ZENBATEKO KONPUTAGARRIA (€)	ORDAINKETA BAKARRA AURRERATUA (%100)
HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAIFZ: G75193607 Sarrera zk.:2024/3138;	Migratzaileek eta errefuxiatuek ihes egiten duten itsas ibilbideetan laguntza humanitaria eta erreskatea euskal gizartea eraldatzeko hezkuntza eta sentsibilizazioa	760.200,00 €	4.000,00 €	4.000,00 €	5.333,33 €	4.000,00 €
*) Oharra: zuriketari dagokion zenbateko konputagarria honako formularen bitartez atera da: Zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria = $\frac{\text{Onartutako diru laguntzaren zenbatekoa} \times 100}{75}$ Eskatzaileek ebazpenaren jakinarazpenean « zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbatekoaren 100 % zuritu beharko dute gutxienez. Dirulaguntzari emandako erabileraren justifikazioa aurkezteko epea, gehienez ere, urteko deialdian ezarritakoa da (2024ko abenduaren 31a).						

Honekin batera, oinarrietan ezarritakoari jarraituz, jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1 0391.481.231.60.01 2024 diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

SINA98a9a578-5a89-4b23-a99d-8bacdd86c36f

Laugarrena.- Hau horrela, dirulaguntzaren ordainketa honela bideratzea proposatzen da:

- Onarpenarekin batera onartutako dirulaguntzaren %100 emango zaio eskatzaileari-ordainketa bakar aurreratua-. Dirulaguntzen xedea kontuan hartuta eta horiek jasotzen dituzten erakundeak irabazi asmorik gabekoak direnez, ez da bermerik eskatuko ordainketa aurreratuengatik.
- Eskatzaileak oinarri orokorretan eta espezifikoetan zehaztutako betebeharrak bete dituztela eta derrigorrezko agiriak aurkeztu dituztela egiaztatuko du Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak zuriketa epean. Zuriketa egiteko formulario normalizatuak Oñatiko udalaren dirulaguntzen web atarian eskuratu ahal izango dira.
- Eskatzaileak jakinarazpenean « zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbateko osoa % zuritu beharko du gutxienez dirulaguntza bere osotasunean jasotzeko, 2024ko abenduaren 31erako berandurenez. Egindako likidazioa aurreratutako kopurua baino txikiagoa bada, dagokion itzulketa-espedientea izapidetuko da.
- Oinarrietan edo dirulaguntzaren emakidan jarritako edozein betebehar betetzen ez bada, berriz aztertuko da dirulaguntza, eta, horren arabera, emandako dirulaguntza baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko da.
- Zuriketarako epeak luzaezinak izango dira kasu eta egoera guztietan.

Bosgarrena.- Aurre-ebaluazioa eta balorazioa bere egin eta onartu ditu Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak, eta proposamena ebatzi ondoren, Organo Eskumendunari, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeari, aurkezturiko taula hauek onartzea eta dirulaguntzen ordainketa bideratzea proposatzen dio.”

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagirak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratoritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Oinarrietan zehazten da lerroren batekorako aurreikusitako zenbatekoa agortzen ez bada, esleitu gabeko zenbatekoa gainerako lerroetako eskabideak diruz laguntzeko erabili ahal izango da, betiere dagozkien oinarrietan eskatzen diren baldintzak eta puntuazioa betetzen badituzte. Horregatik, Partaidetza eta Garapen Komunitariorako sailak proposatu du "B" lerroan agortu gabe zenbateko "A" lerroko dirulaguntzetarako erabiltzea bere osotasunean. Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak aldeko iritzia agertu du.

Azaldutakoagatik, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko informazio batzordearen onetsiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen zaio:

Lehenengoa.- Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak "D lerroa: larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak." egindako proposamenean zerrendatutako eskatzaileari dirulaguntzaren onuradun izaera berrestea, 2024ko dirulaguntzen deialdiaren ebazpen partziala egitea eta 4.000,00 €-ko gastua baimentzea, goian aipatutako xehetasunekin, 1 0391.481.231.60.01 2024 diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

Bigarrena.- "D lerroa: larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak"-en onarpenarekin batera dirulaguntzaren %100a onartzea eta ordaintzea eskatzaile bakoitzari -taulan zehaztutako ordainketa bakar aurreratua. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla eta diruz lagundutako ekintzak benetan egin direla agiri bidez egiaztatu behar dute, kontu zurigarria aurkeztuz 2024ko abenduaren 31a (barne) baino lehen.

Aurkeztutako justifikazioak aztertu eta egiaztatutako ditu Udalak.

Hirugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzeko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gga.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena.- Dirulaguntza hauen onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bosgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta arloko teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena Gazteen emantzipaziorako dirulaguntza eskaera (2024/S/3507), kontrako ebazpena. (**Espediente:** **ESKUA2024JGEN0007**)

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 3ko proposamenak honela dio:

" Gazteen emantzipaziorako dirulaguntza eskaera (2024/S/3507), kontrako ebazpena.(
Espedientea: ESKUA2024JGEN0007)

2024ko maiatzaren 22ko dataz Udaleko Haur eta Gaztedia Teknikaria den Ion Lopez jaunak egindako txostenak honela dio:

" 2024ko maiatzaren 21an egindako Haur eta Gazteria batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak:

Esp. Kodea: 2024JGEN0007

Gazteen emantzipaziorako dirulaguntza eskaera (2024/S/3507), kontrako ebazpena.

2024ko urtarilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, "Oñatiko herrian gazteek etxebizitza alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak" onartu ziren. Aipatutako Osoko Bilkuran ere, Udal Tokiko Batzarraren delegazioz, diru-laguntza hauen 2024ko deialdia onartu zen. Deialdi honen iragarkia 2024ko otsailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (31 zenbakia).

Gauzak horrela, dirulaguntza eskatzeko epea zabalik egongo da 2024ko urriaren 11ra arte.

Dokumentazioa aztertu ondoren, Haur eta Gazteria Teknikariak taulan aipatutako eskatzaileak Oñatiko Udalak eskaintzen dituen diru-laguntzak jasotzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu duela konprobatu du. Dena den 2024/3351 sarrera zenbakiarekin jaso dugun Eusko Jaurlaritzako ebazpenean, Gipuzkoako etxebizitzako lurralde-ordezkararena non Gaztelaguneko onuradunen berri ematen zaigun, aipatutako ebazpenean behean zerrendatzen den eskatzaileari 2024ko martxoaren 1etik aurrera Gaztelaguneko diru-laguntza onartzen zaio, hau da Oñatiko Udalari eskatutako epe berdina. Gauzak horrela, eskaera honek ez luke beteko diru-laguntza hauen 13. Artikuluan jasotakoa:

13. Artikulua.- Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako diru- laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarri ezinak izango dira.

Hori dela eta, Haur eta Gazteria Teknikariak, Haur eta Gazteria Batzordearen onespenezekin, organo eskudunari (Tokiko Gobernu Batzarrari) honako hau proposatzen dio:

Lehenengoa.- Jarraian zerrendatzen diren pertsonak "gazteen emantzipaziorako diru-laguntzaren" onuraduntzat ez jotzea.

Identifikazio zenbakia	Erregistro zenbakia	Epealdia	Kopurua
72827538Q	2024/S/3507	2024ko martxoa 2024ko maiatza	Ukatua
GUZTIRA:			Ukatua

SINA98a9a578-5a89-4b23-a99d-8bacdd86c36f

Bigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.”

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma txirrindularitza lasterketa antolatzeako dirulaguntza 2024**

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 3ko proposamenak honela dio:

“ Gaia: **Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma txirrindularitza lasterketa antolatzeako dirulaguntza 2024**

Oscar Carrascal jaunak (Kirol eta batzordearen idazkariak) 2024ko maiatzaren 15ean egindako kirol batzordearen sinatutako aktak dio:

Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma txirrindularitza lasterketa antolatzeako dirulaguntza 2024

Xabier Ugarte Anduaga jaunak azaltzen du aurten ere txirrindularitza Kriteriuma antolatuko duela elkarteak. Horrenbestez, joan den urtean, 2023an, Udalak eta kirol klubak urte baterako sinatutako lankidetza hitzarmena, elkarteak beste urtebetez luzatu nahi duela jakinarazi du Ugarte jaunak.

Udal kirol batzordeak onartu du lankidetza beste urte batez luzatzea, hitzarmenean propio jasota dagoen moduan. Horrela bada, kirol proba antolatzeagatik bi entitateek hitzartutako dirulaguntza emango dio Udalak kirol klubari, hots: 2750 €. Halaber, batzordeak onartu du ordainketa hitzarmenean jaso bezala egitea.

Azaldutakoagatik, Tokiko Gobernu Batzarrari proposatzen diot aipatutako kirol klubari 2750 euroko dirulaguntza emateaz gain erabaki honen berri kontu-hartzaileari, teknikari sustatzaileari eta interesdunei jakinaraztea.”

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024. Espedientea ESKUA2024ZDKO0007**

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 3ko proposamenak honela dio:

“ **Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024. Espedientea ESKUA2024ZDKO0007**

2024ko maiatzaren 30eko dataz Udaleko Kirol teknikaria den Oscar Carrascal jaunak egindako txostenak honela dio:

“ Udaleko Zubikoa kiroldegiko zuzendaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.: 2024ZDK00007
Interesduna: OÑATIKO UDALA
Gaia: Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024
Sarrera erregistroa: 0000/000000

Zubikoa kiroldegiko zuzendari jaunak hasitako prozedura aztertu da.

Gertakariak:

Lehenengoa.- Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 29an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: kirol arloko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia onartzea. Ondorioz, bi dirulaguntza lerro ezberdinetan dirulaguntza eskaerak egiteko deialdiak abiarazi ziren:

- 1.- Oñatiko Udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako diru-laguntzak
- 2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak

Bigarrena.- Udal kirol batzordeak, eskaerak jasotzeko deialdia egin zuen, eta diru-laguntzak emateko lehiaketa prozesu irekia abiarazi. Eskaerak egiteko epea apirilaren 13an amaitu zen, guztira herriko hamabost kirol talde eta elkarteek dirulaguntza eskaera egin dutelarik. Bestalde, hainbat eskatzailek ez dute aurkeztu eskaerarekin batera eman behar zuten dokumentazioa edo akatsekin aurkeztu dute dokumentazioa, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikuluarekin bat eginez, akatsak zuzentzeko errekerimendua egin die Udal kirol zerbitzuak hamar eguneko epea emanez falta zaien dokumentazioa aurkezteko.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.- Akatsak zuzenduta eta eskatzaileei falta zitzaien dokumentazioa aurkeztuta, Udal kirol batzordeak 2024. urteko dirulaguntzak onartu, eta TGBari horiek esleitzea proposatu dio

Proposamena:

Lehenengoa.- “Oñatiko Udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako diru-laguntzak” dirulaguntza lerroari dagokionez, kirol elkarte bi egin dute eskaera. Horrela bada, dirulaguntzen araudiak jasotzen dituen irizpideen balorazioan oinarrituz, herriko kirol elkartei honako diru-laguntza ematea proposatzen du batzordeak:

Kod.	KIROL ELKARTEA	KONTZEPTUA	ONARTUA
1	Antxintxiketan-Orientazio Eskola	Orokorra	960.00
2	Andarto	Materiala	1540.00

Bigarrena.- “Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak” dirulaguntza lerroari dagokionez, zortzi kirol talde edo/eta kirol elkarte bideratu dituzte eskaerak, urtean zehar bederatzi kirol ekintza ezberdin antolatzeko. Horrela bada, aipaturiko araudiak jasotzen dituen irizpideen balorazioan oinarrituz, herriko kirol elkarte eta taldeei honako dirulaguntza ematea proposatzen du batzordeak:

SINA98a9a578-5a89-4b23-a99d-8bacdd86c36f

Kod.	KIROL ELKARTEA	KONTZEPTUA	ONARTUA
1	Oñatiko Antxintxiketan Kirol Elkartea	San Silbestrea 2022	885.00
2	Eraun Torreauso Auzo Elkartea	Torreausoko Herri Lasterketa	1750.00
3	Herriko Pilota Txapelketa	Herriko Pilota Txapelketa	2500.00
4	Herriko Futbol Txapelketa	Herriko Futbol Txapelketa	600.00
5	Oñatiko Mendi Martxa	Oñatiko Mendi Martxa	2500.00
6	Txantxiku Arkulariak	Gipuzkoako 3D Liga 2	425.00
7	Txantxiku Arkulariak	XIV. San Miguel Saria+Liga 3	25.00
8	Txantxiku Arkulariak	Jaiak	300.00
9	Pago-Uso	Tiro txapelketak	678.15
10	Gabonetako futbito txapelketa	Txapelketa	750.00
11	Gabonetako saskibalo txapelketa	Txapelketa	750.00
12	Andarto	Txapelketa	950.00

Hirugarrena.- Udal kirol batzorde informatiboak entitate ezberdinei egokitutako diru-laguntza proposamena onartzearekin batera dirulaguntzen %60a, ordaintzea onartu du. Dirulaguntzaren beste zatia, diru-laguntzaren %40a, eskatzaileek Udalari jardueraren memoria, memoria ekonomikoa eta ziurtagiriak aurkeztu ondoren ordainduko zaie, badagokie, dirulaguntzak zuritu ondoren. Halaber, batzordeak eskatzaileei gogorarazi nahi die, fakturen bidez justifikatutako gastuak soilik jasoko dutela dirulaguntza, ez bestelakoak.

Laugarrena.- 15.113,15 €-ko gastua onartzea, 1 0700.481.341.00.04 2024 (283) partida eta bere lotespen mailaren kontura.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari eta Kontuhartzaitza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **kontratatzeko kontratu txikia onartzea, eta kontratua ERVITIMUSIK, S.Lri esleitzea, 6292 euroan (%21 BEZa barne). (esp.: 2024ZKON0064)**

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 3ko proposamenak honela dio:

“ Gaia: kontratatzeko kontratu txikia onartzea, eta kontratua ERVITIMUSIK, S.Lri esleitzea, 6292 euroan (%21 BEZa barne). (esp.: 2024ZKON0064)

Oñatiko KULTURA teknikariaren txostena ikusi da. Txostenean azaltzen denez, Batzordean honako ekimen hau onartu zen:

“Justifikazio txostena:

Gaia: “ FAGOT” (haizezko-instrumentua)erostea.

*Gaiari dagokionez, jarraian azaltzen dira **gertakari** hauek:*

Maiatzaren 14ko, asteartea, dataz egindako Bultura Batzordean, besteak beste, honako gaia landu zen:

1. Musika Bandaren eskaera: FAGOT bat erostea.

Gaiarekin lorturiko **gertakariak**:

Lehenengoa.- Martxoaren 19an, Kultura Saila biltzen da, besteak beste, Oñatiko Musika Bandak (OMB) egindako hainbat eskaerari erantzuteko asmoz.

Bigarrenengoa.- Eskaeren artean, musika instrumentuak erosteko proposamena luzatzen zaio Kultura Sailari .OMBri beharrezko instrumentuen zerrenda eta proposamena egitea eskatzen zaio . OMB erregistro bidez, instrumentu proposamena egiten du (Erreg.zk. 289).

Azaldutako aurrekariak kontuan izanda eta gaia Kultura Batzordean aztertu ondoren, honako erabaki- proposamena aurkezten da:

- 1.- Kontratuaren xedea.

OMBk egindako proposamena aintzakotzat hartuta,

:- Haizezko-instrumentu minoritarioak bultzatzeko asmoz, FAGOT, haizezko instrumentua, erostea da kontratuaren xedea.

Oñatiko Musika Bandak "Herriak Herriarentzako banda" proiektuan, gaur egungo eta etorkizuneko gabeziak betetzeko martxan jarri ditu hainbat ekintza lerro. Horietako bat, oboe eta fagot jotzaileak formatzea izan da. Horretarako, taldeak esfortzua egin du instrumentu mota hau joko duen ikasle berria aurkitzeko.

- 2.- Kontratuaren beharraren justifikazioa.

.- OMBk Udalari, proiektu honetan laguntzeko, FAGOT bat erostea eskatzen dio, proiektua bultzatzen jarraitzeko. Hau guztia kontuan izanda eta eskariaren berezitasunagatik, beharrezkoa da hornidura kanpotik kontratatzea, instrumentu bereziko jarduerar- arlo horretan espezializatutako entitate batekin.

- 3.- Balio zenbatetsia: 5200€ (BEZ Gabe).

- 4.- Aurrekontu-aplikazioa: 0800.623.334.00.01 - 2024 5636 diru-atala eta bere lotespen maila.

- 5.- Gauzatzeko epea: esleipenaren jakinarazpenetik aurrera kontatzen hasita, gehienez urte bete.

- 6.- Eskaintza eskatzeko proposaturiko erakundea:

.- FAGOT instrumentua, haizezko -instrumentu berezia da.

.- Erviti Musika Etxea S.L, Donostian kokatua dagoen musika tresna berezietan eta hauen osagaietan espezializaturiko 120 urte dituen etxe-erreferente bakarrenetarikoa da; mota honetako instrumentuak, partiturak zein konponketa jardueran espezializaturik.

.- Erviti Musika Etxeari instrumentu mota honen hiru aurrekontu proposamen eskatzen zaizkio.

Ondorengo hiru aurrekontu proposamen aurkezten dira:

FAGOT,marca. TAKEDA,mod. TB-M2,Arce EstudianteAvanzado,26/6,ReAgud Balance,Do Grave,Campana larga , con estuche. https://www.takeda-bassoon.com/en/archives/product/m2	5.200€ (BEZik gabe)
FAGOT, marca. TAKEDA, mod.TB-M4,Arce Profesional,27/9,Re y Mi Agudos ,Do Grave,Campana larga , con estuche. https://www.takeda-bassoon.com/en/archives/product/m4	6.300€ (BEZik gabe)
FAGOT ,WS 5016, Estudiante, Arce 25 llaves/4 Rod + Re agud https://www.w-schreiber.com/en/instruments/fagott/s16/	6950€ (BEZik gabe)

7.- Proposatutako aurrekontua eta arrazoiak:

.- Eskaintza ekonomikoa aztertuta eta OMB-ko zuzendariaren balorazioa aintzakotzat hartuta: Ervitimusik, S.L.-ak egindako **5200 euroko instrumentuaren aurrekontua onartzea** proposatzen da:

.- “Fagot TAKEDA,mod.TB-M2 Estuadiante Avanzado, 2676, Re Agud balance, DO Grave, Campana larga, con estuche “.

Aurrekontua (BEZik gabe): 5200 euro.

Aurrekontua (BEZ barne): 6292 euro ”.

Kontratu txikien erregulazioa SPKLren artikulua hauetan jasotzen da:

1. 29.8 artikulua: “Lege honen 118. artikulua lehenean apartatua zehazten diren kontratu txikiek ezin dute iraun urtebete baino gehiago, eta luzatu ere ezin dira egin.”

2. 63.4 artikulua: “Kontratu txikiei buruzko informazioa gutxienez ere hiru hilean behin argitaratu beharko da. Kontratu mota horretarako, informazio hau argitaratu beharko da, gutxienez ere: objektua, iraupena, adjudikazioaren zenbatekoa –balio erantsiaren gaineko zerga barne– eta adjudikaziodunaren izena. Kontratuak adjudikaziodunaren izenaren arabera ordenatuko dira.”

3. 118 artikulua:

“1. Kontratu txikitzat joko dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, hargatik eragotzi gabe 229. artikuluan estatu-eremuan zentralizatutako obra, zerbitzu eta hornidurei buruz xedatutakoa.

2. Kontratu txikietan, espedienteak izapidetzeko, kontratazio-organoak txosten bat egin beharko du, arrazoituta justifikatuz kontratuaren beharra dagoela eta ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari, aurreko paragrafoan deskribatutako atalaseak ez aplikatzeko.

3. Halaber, gastua onestea eta dagokion faktura gastuari erantzea eskatuko da; faktura horrek lege hau garatzeko arauetan ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

4. Obra-kontratu txikian, gainera, obren aurrekontua gehitu beharko da, hargatik eragotzi gabe dagokion proiektua izatea, indarrean dauden xedapenek hala eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikuluan aipatzen diren ikuskapen-bulego edo -unitateen txostena eskatu beharko da, lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten diotenean.

5. Artikulu honen 2. paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko ordainketa txikiak egiteko kutxa finkoko aurrerakin-sistemaren edo antzeko sistemaren bidez ordaintzen diren kontratuak, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik gorakoa ez bada.

6. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko dira.”

4. 131 artikulua: "Kontratu txikiak zuzenean adjudikatu ahalko dira; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi adjudikatu ahalko zaizkio, 118. artikuluan ezarritako baldintzak betez betiere."

Espedientean jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Era beran, kontratuaren unitate izapidetzaileak bermatzen du esleipendunak jarduteko gaitasuna duela, prestazioa emateko behar den gaikuntza profesionala duela, ez duela debekurik Administrazioarekin kontratatzeko, eta egunean dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Azaldutakoagatik, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Onartzea teknikariak egindako txostena. Txosten horretan kontratatzeko beharra justifikatzen da eta adierazten da ez dela kontratuaren xedea aldatu kontratazio txikiaren atalaseak aplikatzea saihesteko.

Bigarrena.- Aipatutako administrazio kontratua ERVITIMUSIK. S.L enpresari esleitzea 6292 euroan (%21 BEZa barne) eta gastua onartzea 2024ko aurrekontuko dagokion partidaren 0800.623.334.00.01 - 2024 5636 eta lotespen-mailaren kontura.

Kontratu honek esleipenaren jakinarazpenetik aurrera kontatzen hasita, gehienez urte beteko iraupena du. Ezingo da inola ere luzatu.

Hirugarrena.- Kontratistak nahitaez bete beharko ditu, oro har, kontratuaren exekuzioari aplikatu beharreko arauak, eta, bereziki, Gizarte Segurantzaren, Laneko Segurtasun eta Higienearen arloan indarrean dauden xedapenak, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legetik sortutako araudiak, eta kontratuan jasotako prestazioak egiteko aplikatu beharreko arau teknikoak eta metodologikoak.

Betebehar horiek ez betetzeak sor dezakeen edozein erantzukizun esleipendunarena bakarrik izango da.

Laugarrena.- Kontratua ebazpen honetan eta esleipendunaren aurrekontuan aurreikusitakoari zorrotz lotuta gauzatuko da, Udalak eta zerbitzua eratu eta gainbegiratzeko izendatutako kontratuaren arduradunak hartzen dituzten erabakiekin eta ematen dituzten jarraibideekin bat etorriz. Kontratu honen arduraduna teknikari sustatzailea izango da.

Bosgarrena.- Kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko behar diren langile guztien mendekotasuna eta lotura esleipendunarekin soilik izango dira, eta esleipendunak bere gain hartuko ditu lan-harremanaren ondoriozko betebehar guztiak. Lan-harreman hori ez zaio inola ere Udalari egotziko.

Seigarrena.- Kontratistak nahitaez bete beharko du Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa.

Zazpigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari eta interesdunei jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

8.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2024ko laguntza deialdiaren ebazpen proposamena**

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 4ko proposamenak honela dio:

" Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2024ko laguntza deialdiaren ebazpen proposamena. **Espediente** ESKUA2024ZDKO0010

2024ko ekainaren 4ko dataz Udaleko Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen Teknikariak den Aitor Gerenabarrena Osak egindako egiaztagiriak honela dio:

- 2024ko maiatzaren 14ko Landa Garapen batzordeak honako proposamena egin zuela:

" Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2024ko laguntza deialdiaren ebazpen proposamena.

2024ko otsailaren 29an Udal Tokiko Gobernu Batzarrek egindako bileran Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2024ko laguntza deialdia egitea onartu zuen. Deialdia 2024ko martxoaren 14ean argitaratu zen GAO-n, hortaz, eskaerak aurkezteko epe-muga apirilaren 30a arte izan da.

Dirulaguntza gehigarri honen xedea da: auzoek bultzatutakoak diren baina Udalaren eskumenekoak zein ardurakoak diren lanetan edo auzoaz gaindiko herri onura bat izan dezaketen egitasmoetan, auzoek egitasmo horretarako bideratutako finantziazioari Udalak diru ekarpen gehigarri batekin laguntzea.

Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileen 5. artikulua xedatutakoaren arabera, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak dira: Udalaren eskumenekoak zein ardurakoak diren lanak gauzatzea edo auzoetatik haratago herri onura duten egitasmoak laguntzea.

Aurkeztu diren proposamen guztiek betetzen dute aipatu baldintza.

Laguntza deialdiaren II. eranskinaren 3. atalak xedatutakoaren arabera, deialdi honen baitan 2024/01/01tik 2024/12/31ra bitartean gauzatutako egitasmoak diruz lagunduko dira.

Laguntza deialdiaren II. eranskinaren 2. atalak xedatutakoaren arabera, deialdi honetarako aurrekontu zuzkidura 22.000 €-koa da (1 1104.481.410.00.19 2024 "5507" auzotako proiektuen laguntzak diru-atala)

Jarraian jaso diren eskaeran laburpen-etaula:

sarrera zk	Eskatzailea	2024ko auzotasun partida	gastu proposamena BEZa barne	gastuaren deskribapena
2579	araotz	9.924,76 €	7.920,00 €	Ostatu ondoko jolas parkea (16.838 € BB-ren erdia)
3158	larraña	8.051,73 €	8.027,14 €	Errekalde-Urkulueta baso pista konpontzea
2483	garagaltza	7.670,14 €	6.660,40 €	Iruatz baserrirako bidean biondak jartzeko lanak
3106+3049	zañartu	4.400,00 €	19.990,57 €	auzoko lokalari estalkia egokitzea (portxea)
2579	araotz	9.924,76 €	8.305,00 €	auzoko materiala gordetzeko etxola*
2467	berezao	4.803,80 €	0,00 €	Etxebarri-Gorordo baso pista materiala botatzea**

* - Araozko auzoak 2 egitasmo aurkeztu ditu, baina oinarri arautzaileen arabera bakarra diruz lagundu ahal da

** - ez da aurrekonturik aurkeztu

Laguntza deialdiaren 9. atalak xedatutakoaren arabera, balorazio-batzordeak eskaerak aztertuko ditu eta, laguntzak banatzeko irizpideei jarraituz, puntuak esleituiko ditu. Gero, zerrenda bat prestatuko du, beheranzko hurrenkeran, eskaera bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera, eta hurrenkera horri jarraituz emango dira laguntzak, harik eta funtsak bukatu arte. Puntuazio gehien duen proiektuari eskatutako ko-finantziazio dirulaguntza esleituiko zaio. Arau hau aplikatuz ateratzen den zenbatekoa urteko Udal aurrekontuetan jasotako diru-atala baino handiagoa bada, zerrendan dagoen hurrengoari emango zaio.

Balorazio-batzordeak osatutako zerrendan jasotako proiektu guztiek jasoko dute dirulaguntza harik eta Udal aurrekontuetako diru-atala agortu arte.

Jarraian jaso diren eskaeren balorazio jasotzen duen laburpen-taula:

gastuaren deskribapena	Ko-finantz. %-tan	auzolana (maila)	Herri onura irismena (maila)	Ko-finantz.maila (33 ptu)	Auzolana (33 ptu)	Herri onura irismena (33 ptu)	Puntuak guztira
Ostatu ondoko jolas parkea (16.838 € BB-ren erdia)	50,00%	baxua	ertaina	33,0	11,0	22	66,00 ptu.
Errekalde-Urkulueta baso pista konpontzea	40,00%	baxua	baxua	26,4	11,0	11	48,40 ptu.
Iruatz baserrirako bidean biondak jartzeko lanak	13,51%	baxua	ertaina	8,9	11,0	22	41,92 ptu.
auzoko lokalari estalkia egokitzea (portxea)	2,66%	baxua	baxua	1,8	11,0	11	23,76 ptu.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Tokiko Gobernu Batzarrari jarraian jasotzen den diru-laguntza proposamena onar dezala, deialdiaren 9. atalak xedatutakoari baldintzatuta, hau da: deialdiak xedatutako epean memoria ekonomikoa deskribatzen duen likidazioa aurkeztu beharko da, non, egindakoen deskripzio laburra eta gastuak argi eta garbi azaldu beharko diren.

Eskatzailea	2024ko auzotasun partida	gastu proposamena BEZa barne	gastuaren deskribapena	Esleitutako laguntza €-tan	Aurrekontu zuzkidura
araotz	9.924,76 €	7.920,00 €	Ostatu ondoko jolas parkea (16.838 € BB-ren erdia)	3.960,00 €	3.960,00 €
larraña	8.051,73 €	8.027,14 €	Errekalde-Urkulueta baso pista konpontzea	4.816,28 €	4.816,28 €
garagaltza	7.670,14 €	6.660,40 €	Iruatz baserrirako bidean biondak jartzeko lanak	5.760,40 €	10.576,68 €
zañartu	4.400,00 €	19.990,57 €	auzoko lokalari estalkia egokitzea (portxea)	19.458,68 €	30.085,36 €
				14.536,68 €	7.463,32 €

* - Laguntza deialdiaren 9. atalak xedatutakoaren arabera, Zañartu auzoak aurkeztutako proposamena ez da diruz laguntzen, eskatutako zenbatekoa diruz laguntzeko nahikoa funtsik ez baitago. “

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

9.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Oñatiko HOMtao artzain txaboletan egindako lanak diruz-laguntzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren ebazpen-proposamena**

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 3ko proposamenak honela dio:

“ Oñatiko HOMtak artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren ebazpen proposamena. **Espedientea ESKUA2024ZDK00009**

2024ko ekainaren 4ko dataz Udaleko Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen Teknikariak den Aitor Gerenabarrena Osak egindako egiaztagiria honela dio:

- 2024ko maiatzaren 14ko Landa Garapen batzordeak honako proposamena egin zuela:

Oñatiko HOMtak artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren ebazpen proposamena

2024ko otsailaren 29an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak eta 2024ko dirulaguntza deialdia onartu ziren.

Deialdia 2024ko martxoaren 19an argitaratu zen GAOñ, hortaz, eskaerak aurkezteko epe-muga maiatzaren 6a arte izan da.

Dirulaguntza gehigarri honen xedea da: Batasunaren intereseko diren mendiko larreak kontserbatzea, besteak beste, gainbehera etorri diren jarduera tradizionalei eutsita, abeltzaintza estentsiboa era aktiboan kudeatuta. Laguntzen lerro honen bidez abeltzaintza estentsiboa lagundu nahi da, halaber, artzain txabolak hutsik egon beharrean, erabilera emanda Udal-ondarea kontserbatzen eta mantentzen lagundu nahi da.

Eskaera bakarra jaso da: Miren Itziar Ugarte Ugarte andreak egindakoa.

Oinarri arautzaileen 4. atalak xedatutakoaren arabera, laguntza hauen onuradunak izango dira Oñatiko Herri Onura Mendietan dauden artzain txabolen erabiltzaileak. 2023ko urriaren 19ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz, Tellatxabola I eta II izeneko artzaintza-txabolak erabiltzeko kontzesioa Miren Itziar Ugarte Ugarte andreari ematea erabaki zen. Hortaz, onuradun izateko baldintzak betetzen ditu.

Miren Itziar Ugarte Ugarte andrearen izenean dagoen ES200590070093 Elorrixa ustiategiak betetzen du oinarri arautzaileen 5. atalak xedatutakoa "*Nekazaritza ustialekuak bete beharreko baldintzak*".

Oinarri arautzaileen 8. eta 9. atalek xedatutakoaren arabera ondorengo taulen laburbiltzen da eskaeraren balorazioa eta laguntza proposamena.

gastuaren deskribapena	gastu proposamena BEZa gabe	laguntza kategoria	laguntza %-tan	Esleitutako laguntza €-tan
txim inia konpontzea	570,00 €	7*2	25,00%	142,50 €
barruko hormak raseatzea	2.072,00 €	7*3	25,00%	518,00 €
zoladura hormigoiztatzea	774,80 €	7*3	25,00%	193,70 €
putzu septikoa jartzea	2.310,00 €	7*4	75,00%	1.732,50 €
sarrerako atea jartzea	868,50 €	7*4	75,00%	651,38 €
	6.595,30 €			3.238,08 €
				49,10%

Oinarri arautzaileen 10. atalak xedatutakoaren arabera laguntza emateko ebazpena eman edo, dagokionean, ukatzeko ebazpena Udal Tokiko Gobernu Batzarrak eman beharko du.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Tokiko Gobernu Batzarrari jarraian jasotzen den diru-laguntza proposamena onar dezala:

Lehen: Miren Itziar Ugarte Ugarte andreak egindako eskaera 3.238,08 €-rekin diruz laguntzea.

Bigarrena: oinarri arautzaileen 11. atalari jarraituta laguntzaren %100a aurrerakin bezala ematea.

Hirugarrena: oinarri arautzaileen 11. atalari jarraituta 2024ko abenduaren 31a aurretik, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko dela gogoraztea, ondoko edukiarekin:

- *.- Jarduera memoria bat, egindako ekintzak biltzen dituen
- *.- Egindako inbertsioei dagozkien fakturak/ziurtagiriak eta, kasua bada, ordainagiriak
- .- Entitate onuradunak lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru-sarrera edo laguntzaren bat jasotzen badu, horren zenbatekoa eta jatorriari buruzko informazioa."

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

10.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Informatikako azpiegiturak kudeatzeko zerbitzu gestionatua kontratatzeko kontratua onartzea, eta kontratua SEIN TIC S.L.ri esleitzea, 13890,8 euroan (%21 BEZa barne)**

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 4ko proposamenak honela dio:

Informatikako azpiegiturak kudeatzeko zerbitzu gestionatua kontratatzeko kontratua onartzea, eta kontratua SEIN TIC S.L.ri esleitzea, 13890,8 euroan (%21 BEZa barne)

Oñatiko Informatika teknikariaren txostena ikusi da. Txostenean ekimen hau proposatzen da:

“Udaleko Informatika teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk: 2024ZKON0084

Gaia: Informatikako azpiegiturak kudeatzeko zerbitzu gestionatua kontratua

Gainera, kontratuaren xedea ez da konfiguratu SPKLren 118.1 atalean deskribatutako atalaseak aplikatzeko saihesteko.

1.- Kontratuaren beharraren justifikazioa:

Oñatiko Udalak duen azpiegitura informatika anitza eta zabala da. Azpiegiturak udaletxea erakundeko beste hainbat eraikinekin lotzen ditu (adibidez: udaltzaingoa, kiroldegia, gizarte zerbitzuak...), eta eraikinetako langileen beharren arabera udaleko barne sarera sarrera emanez. Eraikin guztiak lotzeko eta zerbitzu egokia emateko zuntz optiko propioa dago, eta udaletxean daude zerbitzari eta switch nagusiak (hainbat markakoak, motakoak eta belaunaldikoak). Gaur egun, Sein Tic - Tigloorekin daukagu azpiegitura monitorizatua eta edozein akats edo arazo badago berehala jakinarazten digute eta arazoa epe laburrean konpontzen da, baina kontratua amaitu egiten da.

Enpresa baten asistentzia kontratatua izatean, antolaketa eta hobekuntza prozesuan laguntzeaz gain, edozein arazoren aurrean laguntza tekniko espezializatua daukagu gure esku denbora laburrean. Kontuan izan behar da horrelako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek informatikako hainbat arlotan adituak diren teknikariak izaten dituztela. Normalean langile horiek informatika eta azpiegiturretan punta-puntako diren enpresen ziurtagiriak izaten dituzte, eta, horiek jasotzeko, aplikazio eta gailuen azken eguneraketa eta berrikuntzen berri izateaz gain, beraien ezagutzak frogatu behar dituztela. Eta gure helburuetako bat sistemak hobetzea denez, batez ere segurtasuna bermatze aldera, horrelako adituen laguntzarekin jarraitzea beharrezkoa da.

2.- Balio zenbatetsia: 11480€ (BEZ Gabe)

3.- Aurrekontu-aplikazioa.

Partida zenbakia: 1 0901.227.920.00.93 2024 (5643)

4.- Eskaintzak hautatzeko irizpidea (hala dagokionean):

1. Prezioa: 11480 + BEZ

5.- Eskaintzak eskatzeko proposatutako erakundeak (hala dagokionean):

Bideon
Discon
Sein Tic - Tigloo

6. Proposatutako esleipenduna eta arrazoiak.

Esleipeduna: Sein Tic - Tigloo
Aurrekontua (BEZik gabe): 11480 euro

SINA98a9a578-5a89-4b23-a99d-8bacdd86c36f

Jasotako hiru aurrekontuak aztertuta; prezioa eta eskaintako zerbitzuak kontuan izanik, Sein Tic – Tigloo enpresakoa dela egokiena iruditzen zait.

7.- Proposamena

Jasotako aurrekontuak aztertu ondoren informatika azpiegituraren kudeatze zerbitzu gestioa Tigloo enpresari esleitzea proposatzen da.“

Kontratu txikien erregulazioa SPKLren artikulua hauetan jasotzen da:

1. 29.8 artikulua: "Lege honen 118. artikulua lehenean apartatua zehazten diren kontratu txikiek ezin dute iraun urtebete baino gehiago, eta luzatu ere ezin dira egin."

2. 63.4 artikulua: "Kontratu txikiei buruzko informazioa gutxienez ere hiru hilean behin argitaratu beharko da. Kontratu mota horretarako, informazio hau argitaratu beharko da, gutxienez ere: objektua, iraupena, adjudikazioaren zenbatekoa –balio erantsiaren gaineko zerga barne– eta adjudikaziodunaren izena. Kontratuak adjudikaziodunaren izenaren arabera ordenatuko dira."

3. 118 artikulua:

"1. Kontratu txikitzat joko dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, hargatik eragotzi gabe 229. artikuluan estatu-eremuan zentralizatutako obra, zerbitzu eta hornidurei buruz xedatutakoa.

2. Kontratu txikietan, espediente izapidetzeko, kontratazio-organoak txosten bat egin beharko du, arrazoituta justifikatuz kontratuaren beharra dagoela eta ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari, aurreko paragrafoan deskribatutako atalaseak ez aplikatzeko.

3. Halaber, gastua onestea eta dagokion faktura gastuari erantzea eskatuko da; faktura horrek lege hau garatzeko arauetan ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

4. Obra-kontratu txikian, gainera, obraren aurrekontua gehitu beharko da, hargatik eragotzi gabe dagokion proiektua izatea, indarrean dauden xedapenek hala eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikuluan aipatzen diren ikuskapen-bulego edo -unitateen txostena eskatu beharko da, lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten diotenean.

5. Artikulu honen 2. paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko ordainketa txikiak egiteko kutxa finkoko aurrerakin-sistemaren edo antzeko sistemaren bidez ordaintzen diren kontratuaren, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik gorakoa ez bada.

6. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko dira."

4. 131 artikulua: "Kontratu txikiak zuzenean adjudikatu ahalko dira; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi adjudikatu ahalko zaizkio, 118. artikuluan ezarritako baldintzak betez betiere."

Espedientean jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Era beran, kontratuaren unitate izapidetzaileak bermatzen du esleipendunak jarduteko gaitasuna duela, prestazioa emateko behar den gaikuntza profesionala duela, ez duela debekurik Administrazioarekin kontratatzeke, eta egunean dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Azaldutakoagatik, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Onartzea teknikariak egindako txostena. Txosten horretan kontratatzeke beharra justifikatzen da eta adierazten da ez dela kontratuaren xedea aldatu kontratazio txikiaren atalaseak aplikatzea saihesteko.

Bigarrena.- Aipatutako zerbitzua administrazio kontratua SEIN TIC S.L. enpresari esleitzea 13890,8 euroan (%21 BEZa barne) eta gastua onartzea 2024ko aurrekontuko dagokion partidaren (partida: 1 0901.227.920.00.93 2024 (5643)) eta lotespen-mailaren kontura.

Kontratu honek urte beteko iraupena du. Ezingo da inola ere luzatu.

Hirugarrena.- Kontratistak nahitaez bete beharko ditu, oro har, kontratuaren exekuzioari aplikatu beharreko arauak, eta, bereziki, Gizarte Segurantzaren, Laneko Segurtasun eta Higienearen arloan indarrean dauden xedapenak, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legetik sortutako araudiak, eta kontratuan jasotako prestazioak egiteko aplikatu beharreko arau teknikoak eta metodologikoak.

Betebehar horiek ez betetzeak sor dezakeen edozein erantzukizun esleipendunarena bakarrik izango da.

Laugarrena.- Kontratua ebazpen honetan eta esleipendunaren aurrekontuan aurreikusitakoari zorrotz lotuta gauzatuko da, Udalak eta zerbitzua eratu eta gainbegiratzeko izendatutako kontratuaren arduradunak hartzen dituzten erabakiekin eta ematen dituzten jarraibideekin bat etorritik. Kontratu honen arduraduna teknikari sustatzailea izango da.

Bosgarrena.- Kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko behar diren langile guztien mendekotasuna eta lotura esleipendunarekin soilik izango dira, eta esleipendunak bere gain hartuko ditu lan-harremanaren ondoriozko betebehar guztiak. Lan-harreman hori ez zaio inola ere Udalari egotziko.

Seigarrena.- Kontratistak nahitaez bete beharko du Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa.

Zazpigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari eta interesdunei jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Eta besterik ezean, 17:45etan, Alkateak bilkura amaitutzat jo zuen, eta esandakoak jasota gera daitezen egin dut agiri hau alkatearen ontzat emanarekin. Horren fede ematen dut, idazkaria naizen aldetik.

O.E

Alkateak

Izaro Elorza Arregui

Idazkaria

Jesus Mª Madinabeitia



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	TGB20240606
CSV/EKS:	SINA98a9a578-5a89-4b23-a99d-8bacdd86c36f

Sinatzailea 1 / Firmante 1: JESUS MARIA MADINABEITIA JAUREGUI - 15368391K
Secretario accidental
Data / Fecha: 2024/06/07 09:53:43